

FUNTSEZKO JARDUERAK

Jarraian gure baliozko proposamena ekoizteko eta gure ondasunak sortzeko guk geuk egin behar ditugun ekintza eta prozesu garrantzitsu guztiak zehaztuko ditugu. Aurrez adierazitako ekintza eta prozesuak lehenetsiko ditugu, hauek duten garrantziaren arabera.

Lehenik, gure produktuen produkzioa dugu. Gure material gehienak bukatuta erosiko ditugun arren (iturria, burdinezko xaflak,...), guk erabiliko ditugun sentsoreak geuk antolatu eta programatu beharko ditugu, *Scratch* programaren laguntzat. Hasiera batean, Oleta iturgintzak lagunduko digu produktua muntatzen, gure lankide Danelek iturgin kurtso bat egiten ari den bitartean. Kurtsoa bukatzean, gu izango gara instalazioaren arduradun eta prozesua gure esku egongo da.

Bestalde, webgunea antolatzen eta bezeroekin harremanetan jarriko da gure taldekide Maddi. Alde batetik, webgunetik edonork ikus ditzake produktuaren xehetasun guztiak zalantzatik atera dadin. Gainera, gure emaila eta telefonoa nahi duenaren eskura dago laguntza pertsonalizatuago bat eskuratzeko nahia izanez gero.



Gainera, kontuak ere guk eramango ditugu, oso garrantzitsua iruditzen zaigu gestio zuzen bat izatea lortutako irabazi eta kostuekin. Izan ere, Aratzek eta Maddik badute eskarmentua arlo honen inguruan, eta etekina atera diezaokegun zerbait da.

Furgonetaz bidaiatuko dugu bezeroengana iristeko, zehazki, gure taldekide Danelenean. Gainera, furgonetaren edukiera oso handia da, gure materialak gordetzeko ezinbestekoa.

Garrantzitsua iruditzen zaigu gure enpresak ondo jardun dezan ezinbestekoak diren jarduerak guk gure kabuz egitea eta ez beste enpresa baten esku utzi.